

JOSE LUIS LASA ▶ IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIAKO IDAZKARIA

«Ordizia erreferentzia bihurtzeko Kofradiak egin duen lana garrantzitsua da»

Egoitza berria estreinatu du Dorrean Ordiziako Idiazabal Gaztaren Kofradiak; «urrats handia» dela dio Lasak

MAIDER DEL OLMO

Dorreko egoitza berrian hartu gaitu Jose Luis Lasa Ordiziako Idiazabal Gaztaren Kofradiako idazkariak. Erakundearen lana eta erronkak azaldu dizkigu, egoitza edukitzea «urrats handia» dela agertuz.

Egoitza beharrezkoa zenuela esan duzue Kofradiatik askotan. Zergatik?

1990. urtean kofradia sortu zenetik material ugari bildu dugu, eta horretaz gain elkartzeko leku bat botatzen genuen faltan, telefonoarekin, ordenagailuarekin. Gauzak banatuta ditugu han eta hemen. Lokal honek biltegi bezala ere balioko digu zentzu horretan. Aste-an bi egunetan edo irekitzea gustatuko litzaiguke. Pauso handia da guretzat. Lokal hau Kimetz emakume ekartearekin konpartituko dugu.

Zein da Kofradiaren helburu nagusia?

Zalantzarik gabe Idiazabal gazta ezagutzera ematea, Euskal Herrian eta leku guztietan. Horrekin batera gaztaren kalitatea bultzatzea. Horren inguruan Kofradiak egin duen lana ren emaitza agerikoa da. Gaztaren kalitatea nola hobetu den ikaragarria da. Hasierako txapelketetan gazta batzuk jan ere ezin ziren egin. Gaur egun kontrola handiagoa da.

Zenbat lagun zarete kofrade?

Guztira 62 kofrade gara. Gehienak Ordiziakoak bertakoak gara, nbaina kanpokoak ere badaude. Batzuek beste adina 50 urtekoa da. Erronka orain jende gaztea sartzea da, baina zaila da. Jende gazteak orokorrean ez du gai hauetan interes handirik agertzen. Hala ere, piskanaka batzuk ari dira animatzen eta parte hartzen ari dira hainbat dinamiketan, egunen batean gure lekua hartzea



MAIDER DEL OLMO

izango zen posgarriena. Guk argi dugu belaunaldi aldaketa beharrezkoa dela, bestela aurretik egindako lan denak ez du balio.

Zein lan egiten duzue Idiazabal gaztaren inguruan?

Urtean zehar hainbat ekitaldi egiten ditugu. ospetsuenak Euskal jaiteako gazta txapelketa eta gazta berriaren aurkezpena dira. Bestalde, azaroan gazta txapeldunen lehiaketa ere egiten dugu ardoaren ferriarekin batera. Horretaz gain urtero eskurtsio bat egiteko ohitura daukagu. Modu batera kultur txango bat ere bada. Museoren bat ikusi, eta bazkari legea egiteko aprobetxatzen dugu giro jatorrean.

Hamazpi urte beteko ditu Kofradiak. Zein da zure ustez zuen lorpen handiena?

Batetik lehen genioen bezala kalitatearena. Bestalde, Idiazabal gazta ezagutzera emateko ezezik Ordizia erreferentzia bilakatzerako orduan ere Ko-

fradiaren lana garrantzitsua izan da. Ordizia, gazta eta feria, horiek dira gure hiru ardatzak. Nik beti esan izan dut Ordiziakoa izatea ohore bat dela.

Beti izan al zara gazta zalea?

Bai. Etxetik datorkidan gauza bat da. Gure etxean Idiazabal gazta ez da inoiz falta izan.

Horretaz gain, Kofradiak egin dituen ekitaldi guztietako materiala omen duzu etxean gordeta...

Gauza batzuk artxibatuta daukat eta beste batzuk ordenagailuan. Bai, material pilo interesgarria da, eta etxean ditut gauza asko. Orain egoitza berriera ekarri nahi dut, hemen denen eskura egon dadin. Aurrrera begira forma ere eman nahi diogu. Ez da ahaztu behar gure aurretik ere lan handia egin zuela Antton Olano zenak, eta harekin baita beste ordiziar batzuek ere. 1990. urteko irailean 4an sortu zen Kofradia, baina aurrez ere egindako lana ez da ahaztu behar.

ORDIZIA ▶

Aizpuruak ipuin kontaketa eskainiko du gaur

Udal liburutegiak antolatuta Mertxe Aizpuruarekin ipuin kontaketa izango da gaur etxeko txikienentzat. Lau eta zortzi urte bitarteko umeentzako kontakizuna izango da. Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Liburutegiko arduradunek herriko ume denak gonbidatu dituzte gaur arratsaldeko saiora gerturatzea. Umeei ezezik haien gurasoei ere luzatu diete gonbidapena liburutegiko arduradunek.

ORDIZIA ▶

ETBk ez du Oianguri buruzko lana emango

Joan den ostegunean ETBko *Betizu* programan Oianguko parkeari buruzko erreportajea eskaini behar zuten, baina azkenean ez zen emititu. Programa horretako erredaktore buruaren arabera, guraso batzuek deitu egin zuten programara, beraien seme-alaben irudirik ez emateko eskatuz. Irudi horiek kenduta bideoak «indarra galtzen» zuela ikusirik, osorik ez emititzea erabaki du ETBk.

ORDIZIA ▶ ETXEBIZITZA



Majori kiroldegain egin zuten zozketa, atzo. MAIDER DEL OLMO

Apellaniz-eneko zozketa egin dute

Bostehun lagunetik gora elkartu ziren, atzo, Majori kiroldegian, Filipineta kaleko Apellaniz-eneko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan. Guztira 31 etxebizitza zozkatu zituzten; 540 herritar zeuden guztira etxebizitza eskuratzeko zerrrendetan. Joan den azaroan zozketa bertan behera gelditu zen Eusko Jaurlaritzak hala aginduta. Jaurlaritzaren arabera etxebizitzek ez zuten behin-behineko kalifikaziorik. Zozketa «berandu» egin dela esan zuten, atzo, kiroldegira inguratutako hainbat herritarrek, eta herritarrek denbora askoan itxaron behar izan dutela erantsi zuten era berean.

LAZKAO ▶

Santa Ageda eskean aterako dira ikastolakoak

Bihar, larunbata, Santa Ageda bezpera ospatuko da. Hori dela eta, Lazkaoko San Benito ikastolako haurrak kantu eskean aterako dira. Bi taldetan banatuko dira horretarako; Lehen Hezkuntzako taldea goizeko 10:00etan aterako da ikastolatik; Haur Hezkuntzakoak 10:30ean. Eguerdian bukatuko da, plazan. Bildutako dirua Rwanda Taldeari bideratuko diote.

ZALDIBIA ▶

Santa Agedako entsegua egingo da iluntzean

Urteroko ohiturari jarraituz, bihar Santa Ageda eskea egingo da Zaldibian, baserriz baserri. Aurten, larunbata dela eta, goizeko 11:00etan elkartuko dira Illati tabernan. Bestalde, biharko kantaldirako aurretik ezarriak berotzeko, entsegua egingo dute gaur iluntzean. Zaldibiako kultur etxean izango da, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

KOFRADIA

«Idiazabal gazta ezagutzera ematea da gure helburua, Euskal Herrian bezala leku guztietan»

ETORKIZUNA

«Guk argi dugu belaunaldi aldaketa beharrezkoa dela; bestela, egindako lan guztiak ez du balio»

OINARRIAK

«Ordizia, gazta eta feriak, horiek dira ardatzak; beti esan izan dut ordiziarra izatea ohorea dela»